



## **NORMALKUNTZA BATZORDEA**

### Helburu Nagusiak:

- Euskararen erabilera indartu.
- Euskararen transmisio eta motibaziorako gurasoen jarrerak zein garrantzia duen helarazi.

Eskola ULIBARRIN sartua dago. ULIBARRI Hezkuntza Sailak bideratzen duen programa bat da. Programa honen bidez, Euskararen Normalizazioa bultzatu nahi da hezkuntza komunitatean. Berez, helburua, ikastetxeei laguntzea bere HNPa(Hizkuntza Normalkuntza Plana) garatzea da.

Programa hau 1996 – 97 ikasturtean jarri zen martxan eta une honetan 400 ikastetxe inguru dira (etapa guztietakoak, sare ezberdinetakoak, handi zein txiki eta 3 probintzietakoak) programan parte hartzen ari direnak.

### NORMALKUNTZA Zer da?:

Normalizazioaren helburua erabilera hedatzea da, zabaltzea.

Gure eskola hasieratik dago sartua.

Lehenik eskolako egoera aztertu eta horren atzetik 4 urtetarako proiektua zehazten da, gero garatzen joango dena. Nola?

- Urtero ikasturteko plangintza burutzen da eta eremu ezberdinak ikutzen ditu.

#### **1. EREMU INSTITUZIONALA:**

- Ikastetxearen antolakuntza.
- Normalkuntza sustatzeko erabakiak
- Ikastetxearen harremanetarako hizkuntza – irizpideak.
- Eskola eta eragileen arteko elkar hartzea.

#### **2. ESKOLAKO KIDEEN HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA ETA ERABILERA:**

- Ikasleak.
- Irakasleak.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileak.
- Gurasoak.

#### **3. GELAZKANPOKO JARDUERAK:**

- Eskola eragile.
- Elkarreak.

Ikasturte amaieran egindakoaren inguruan memoria bat ere aurkeztu behar izaten da.

Ikasturtean zehar Ordiziko Berritzegunean Normalkuntza Mintegian eskolak parte hartzen du eta hilean behin bailarako beste ikastetxe batzuekin elkartzen dira. Bertan formakuntza ezberdinak jasotzen dituzte, informazio banaketa egiten da eta lan taldeetan banatzen dira.

lazko urte bukaeran ikasturteko balorazioa egiteko garaian, Gurasoek Normalkuntza batzordean parte hartzearen nahia bi aldeetatik agertu zen. Elkarrekin lan eginda gauza interesgarriak egin daitezkeela iruditzen zitzaigulako, denon ekarpenak beharrezkoak baitira.

Euskararen erabilerarekin arduratuta, aurten Domingo Agirre eskolan Normalkuntza deritzon Batzorde misto bat osatzea erabaki genuen. Hilean behineko maiztasunarekin biltzen gara, eta bertan urtean zehar aurrera eramateko ekintzen planifikazioa zehazten goaz. Batzorde hau 2 irakasle eta 3 gurasok osatzen dugu.

Bestalde, normalkuntza batzordean 7 irakaslek hartzen dute parte.

Batzorde mistoak antolatutako ekintza nagusienak momentuz honako hauek izan dira:

- 1.- Euskararen asteko ekintzak.
- 2.- Ikasturte hasierako gelako bilerak
- 3.- Euskal Jolasak
- 4.- Blogaren erabilera sustatzeko ekintzak.
- 5.- Jangelako erabiltzaileen euskararen erabilera sustatzeko kanpaina

#### 1.- EUSKARAREN ASTEA:

Abenduaren 3an, denok dakigun bezala Euskara eguna ospatzen da eta aste horretan ikastetxean euskararen erabilera sustatzeko ekintza ezberdinak antolatzen dira. Abenduaren 3an, frontoian festa burutu genuen. Festa honetan ikasleek beraien gurasoekin Euskal kantak abestu genituen. Haurrak oholtzara mailaka igotzen ziren, eta momentuan oholtzan zeuden haurren gurasoak atzean jarri eta denak batera, adostuta zeuden abestiak abestu genituen. Abesti horiek eskolako web orrian aurrez zintzilikatzea erabaki zen, gurasoek gure haurrekin etxean abesteko aukera izan genezan.

Emanaldiaren ostean, zuhaitz txiki bat landatu genuen, metafora gisa, modu sinbolikoan, erein ostean jasotzen diren fruituak ikus ditzagun, euskararen erabilerarekin konparatuz; hau da, gure erabilera gero eta gehiago maitatu eta zainduz gero, Euskara hazi egingo zaigu.

#### 2.- IKASTURTE HASIERAKO MAILAKO AURKEZPEN BILERAK

Datorren ikasturteari begira, batzorde mistoan aurkezpen bat prestatzen ari gara; gure asmoa urte hasierako bilerak aprobetxatuz, euskararen erabileraren garrantziaz gurasoak ohartaraztea da.

Bertan familia tipologia ezberdinei (ama hizkuntza euskara edota erdara dutenei) zuzenduriko zenbait gomendio egongo dira. Ama hizkuntza euskara dutenei, indartzeko gomendioak eta erdara hizkuntza dutenei adibidez, euskarazko komunikabideen erabilera indartzeko gomendioa. Bertan mezu klabe eta irudi esanguratsuak erabiliko dira. Material hau sortzerakoan umeen partaidetza bultzatu da. Hori aurrera eramateko zenbait bilera burutu dira.

### 3.- EUSKAL JOLASAK:

Eskolako gurasoekin “Euskal jolasen “ inguruan tailer bat burutzea erabaki da. Horretarako “URTXINTXA ESKOLA”koekin harremanetan jarri gara.

### 4.- BLOGAREN ERABILERA SUSTATZEA

Aurten ere Euskararen blogari indarra eman nahi diogu eta zenbait ekintzen bidez, gurasoak eta umeak eskolako Web orria eta Bloga bisitatzeko ohitura piztu nahi dugu.

Haur hezkuntzako ikasleek gai bat landu ondoren landutakoaren inguruan laburpentxo bat eramaten dute etxera; bertan, landutako hiztegia, kantalak, olerkiak,... agertzen dira. Landutako kanten doinuak blogean zintzilikatzeke proposamena batzordean luzatu genuen eta dagoeneko, martxan dago.

<http://txomintxorentxokoa.blogspot.com.es/>

### 5.-JANGELAKO ERABILTZAILA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO KANPAINA

Batzorde mistoko ama batek jangelako begiralea ere izanik bere kezka agertu zuen batzordean jangelako erabiltzaileek egiten zuten euskara erabilera kaskarraz. Beraz, erabaki genuen kanpaina bat martxan jartzea:

Sarreran kortxo bat jarri. Mahaika, eserita dauden bezala, argazkiak atera eta mahai bakoitzaren erabilera saritzeko argazkia kortxoan zintzilikatu. Ostegunetan argazkiak atera, ostiralean esan eta hurrengo aste osoan ikusgarri egongo lirateke. Argazki bat atera den aldi bakoitzeko erregistro bat bete. Hilan bukaeran aipamen gehien izan duen taldeak saria eskuratuko luke (libretatxoak,...)

**Eskola:** *CEIP Domingo Agirre Legazpiko Eskola Publikoa*  
**Kontaktua:** *Leire Makibar (IGEko lehendakariordea)*  
**Emaila:** *lmakibar@hotmail.com*